

## ^ (Trans)feminismorantz: herria eta ideologia



*Baionako artilezko altxamendurako zertzelada batzuk. UEU, 2014*

*Mahai-ingururako proposamena. Ainhoa Güemes*

## > Agentzia

Agentzia, zentzu zabalean, ekintzarako ahalmena eta trebetasuna litzateke. Uler dezakegu agentzia soilik egitura sozialen gainetik, hau da, nork bere nahiaren arabera ekiteko gaitasunean?

Posible litzateke agente ekintzaile bihurtzea giza taldeetatik kanpo? Zer nolako ezberdintasunak somatzen ditugu 'talde', 'komunitate' edo 'kolektibo' kontzeptuen eta 'herri' edo 'nazio' kontzeptuen artean?

## > Gorputz

Kritika feministak erakutsi digu gure gorputza borroka politikorako gunea dela: besteak beste, kultura postindustrialetan, merkatuaren logikak, hegemonia teknologikoak eta irudi mediatikoak zeharkatzen dute gorputza.

Gorputza ulertzeko modu ezberdinak daude. Etengabeko indar borroka bat ematen da gure baitan. Gorputzaren alde soziala bereiziz, zer suposatuko luke indibidualismotik harago herri gorpuzkera irudikatzeak? Zer dakar herriaren gorpuztasuna onartzeak eta barneratzeak? Euskaldunontzako, zertan datza elkarrenganako dependentzia eta elkarrekin lortutako garapena?

(Trans)feminismoak ate batzuk zabaldu ditu, gorputza ulertzeko beste parametro batzuk ikusarazi ditu.

Uste duzue (trans)feminismoaren ekarpena baliogarria izan dela gure gorputza askatzeko eta gure kultura aberasteko? Nola irudikatu da gorputza euskal kulturaren denboran zehar? Zer esan behar duzue euskal matriarkatuari buruz?, eta feminismo esentzialistaz?

Preciadoren hurrengo erreflexioaren inguruan, eta bereziki gure kontestura ekarria, zer esanik duzue?

**“El cuerpo de las mujeres contiene dentro de sí un espacio público, por cuya jurisdicción se disputan no sólo los poderes religiosos y políticos, sino también las industrias médicas, farmacéuticas y agroalimentarias. De ahí que, como bien señala la historiadora Joan Scott las mujeres hayan estado durante largo tiempo en una situación de “ciudadanía paradójica”: si como cuerpos humanos pertenecen a la comunidad democrática de ciudadanos libres, como cuerpos con úteros potencialmente gestantes, pierden su autonomía y pasan a ser objeto de una intensa vigilancia y tutela política.**

**Cada mujer lleva dentro de sí un laboratorio del Estado-Nación de cuya gestión depende la pureza de la etnia nacional.** Durante los últimos cuarenta años, el feminismo ha llevado a cabo en Occidente un proceso de descolonización del útero. Pero la actualidad española nos muestra que este proceso no sólo está inacabado, sino que es frágil y fácilmente revocable.

Las políticas del útero, como la censura o la restricción de la libertad de manifestación, son un buen detector de las derivas nacionalistas y totalitarias. En un contexto de crisis económica y política del Estado español, frente a la reorganización del territorio y de “anatomía” nacional (pensemos en el proceso abierto de secesión de Cataluña, pero también en el actual descrédito de la monarquía y en la corrupción de las élites dirigentes) **el gobierno busca recuperar el útero como lugar biopolítico en el que fabricar de nuevo la soberanía nacional.** Sueñan que poseyendo el útero podrán mantener las viejas fronteras del Estado-Nación en descomposición.

Hagamos esta huelga como haríamos el más *matriótico* de los gestos: para acabar con la ficción nacional y empezar a imaginar una comunidad de vida post-Estado-nacional, que no tenga como condición de posibilidad la violencia y la expropiación del útero”.

## > *Queer* diaspora

Diaspora terminoa ikasketa postkolonialetan finkatu da. Diaspora *queer* kontzeptuak norabide eta izaera jakin bateko migrazioez hitz egiten du: genero-identitateak eta sexu-joerak eragindako migrazioez, hain zuzen.

Gure sorlekuan, Euskal Herrian, identitate anormal eta bitxi horiek askatasunez bizitzeko oztupoak izan ditugula uste duzue?

Ekar dezagun gogora Amaia-Aimar Elosegiren kasua, 2007an bere buruaz beste egin zuen hernaniarra. Zoritxarrez, aukeraketa sexuala, identitate transexuala eta horrelako kontzeptuak oso berriak dira gure jendartean. Gizartea legearen oso atzetik dagoela jakin badakigu. Amaia-Aimarrek, bere erabaki duinarekin moral faltsuari kolpe handi bat eman zion.

Beraz, banan banako kasu hauei erreparatuz, ulergarria da diaspora *queer* horretan abiatu diren pertsona eta kolektibo batzuk sorterriaren sare itogarritik ihes egitea; *queer* izateagatik haien sorterriarekin izan duten haustura gatazkatsua izan delako.

Dena den, zuen ustez, joera sexualaren ondoriozko gatazkak eta migrazioak, edo exilio sexualak (sexilioa) eraman behar gaitu, nahitanahiez, herriaren beharra eta herri nahia ukatzera?

## > Boterea

Subjektu batek (izan norbanako nahiz kolektibo) bere helburu eta nahiak lortu edota bere borondatea gauzatzeko duen ahalmena izendatzen du botereak. Boterea, kontzeptualki behintzat, ezin uler daiteke postu finko baten moduan, baizik eta unean uneko indar-harremanen nolabaiteko emaitza bezala.

Hau kontuan harturik, nola pentsatzen duzue gauzatu behar direla feminista abertzaleen eta munduko beste feminista batzuen arteko harreman estrategikoak? Kanpotik datozen ezagutzak eta esperientziak positiboki baloratu behar dira, noski, baina, ados zaudete gure herri izaerak duen ezagutza diferentziala eta pribilegiatua (errekurtso fisikoak, ekonomikoak, linguistikoak, mitologikoak, afektiboak, etabar) bereziki defendatu behar ditugula, gure jabetza propioa bermatu nahi baldin badugu?

## > Postmodernitatea

Postmodernitateak modernitatearen krisia iragarri zuen: ez dago jada egia absolutu eta unibertsalantzako edota proiektu totalizatzaileentzako lekurik.

Honen ondorioz, fragmentarioa, indibiduala eta lokala den oro gailendu da. Baten batek dio, zorionez, gure herria modernitatetik at geratu dela, ez dugula modernitatea igaro. Subjektu feminista eta abertzale zareten heinean ados zaudete ideia honekin?

## > Borondate kolektiboa

Zer pausuak ematen ari gara (trans)feminista abertzaleak hegemonia maila altuagoak lortzeko bidean? Nola irudikatzen ari gara gaur egun kritika feministatik euskal balioak, usteak, mitoak,... hau da, herri bezala dugun ikuskera konpartitua?

Balore konpartituak, eta amankomunean ditugun desirak, diskurtsoan mamitzen direnean gure artean ideologia konkretu bat eratzen doala esango genuke. Ba al dago borondate kolektiborik ideologiarik gabe?

Preciadok idatzitako lerro hauek direla eta, zer esanik bai?

“Los gurús de izquierda de la vieja Europa colonial se obstinan en querer explicar a los activistas de los movimientos Occupy, del 15M, a las transfeministas del movimiento tullido-trans-puto-marico-bollero-intersex y postporn que no podemos hacer la revolución porque no tenemos una ideología. Dicen “una ideología” como mi madre decía “un marido”. No necesitamos ni ideología ni marido. Las transfeministas no necesitamos un marido porque no somos mujeres. Tampoco necesitamos ideología porque no somos un pueblo. Ni comunismo ni liberalismo. Ni la cantinela católico-musulmano-judía. Nosotros hablamos otras lenguas”.

## > Iraultza

Iraultza gizarte egituren errotiko aldaketa helburu izanik, indarrean dagoen sistemaren botere eta kudeaketa-guneak eskuratu eta horiek eraldaketaren zerbitzura erabilzeko estrategia duen jardun politikoari deritzo.

‘Iraultza feminista izango da ala ez da izango’ leloa askotan erabili dugu azken boladan, zer esan nahi du lelo honek gure kontestuan? Uste duzue euskal jendartearen prest dagoela iraultza feminista bat abian jartzeko? Uste duzue feminismoaren aldeko borroka pil pilean dagoela gure herrian? Okurritzen zaizue strategiaren bat borroka feminista indarberritzeko Euskal Herrian? Hemendik aurrera, gure nahiak adierazteaz gain, nola erabiliko dugu daukagun indar sinbolikoa?